

Jango al zenituzke intsektuak?



Munduko herrialde batzuetan, Asiako herrialde batzuetan esaterako, intsektuak jateko ohitura dute, eta nutrizionistek diote elikagai osasungarriak direla. Zuk zeuk jango al zenituzke?

Argazkia: pasta kilkerrekin. pixabay



Entzun zer dioen gai honi buruz Bittor Rodriguez dietistak, eta kaleko jendearen iritzia. Ondoren, hautatu galderen erantzun egokia.



<https://labur.eus/3iHZF>



1. Intsektuen harira hainbat lekuri buruz hitz egiten du audioak. Zer esateko, zehazki?

- Intsektuak jateko ohitura non ematen den esaten da.
- Portugalen intsektuak jatea zergatik debekatu den esaten da.
- Gurean, Euskal Herrian, intsektuak non saltzen diren esaten da.

2. Gero eta intsektu gehiago jaten omen da. Zergatik?

- Goxoak izateaz gainera, erraz prestatzen direlako.
- Besteak beste, munduan biztanleak ugaltzen eta natura-baliabideak gutxitzen ari direlako.
- Intsektuak izugarri ugartu direlako munduan; hazkunde handia izan dute.

3. Zer dio Bittor Rodriguez dietistak intsektuak jateaz?

- Interesgarria dela osasunerako, betiere intsektuak lekaleekin batera jaten badira.
- Zergatik jan behar dira intsektuak beste alternatiba batzuk baldin baditugu?
- Janari osagarri bezala interesgarria iruditzen zaio intsektu-jana.

4. Bittor Rodriguezek jan al du intsekturik?

- Ez, ondo gosaltzeko edo meriendatzeko ez direlako beharrezkoak.
- Fruitu lehorrekin nahastuta jan ditu.
- Intsektu batzuk jan ditu eta zapore aldetik zeren antza duten azaldu du.

5. Intsektuak jateaz elkarrizketatu dute jendea. Zein da baieztapen zuzena?

- Elkarrizketatu batzuek agian jango lituzkete intsektuak.
- Elkarrizketatu gehienek diote gaur egun hemen jende askok jaten dituela intsektuak.
- Ez dago kaleko elkarrizketatuen artean intsekturik jan duenik.

ERANTZUNAK

1. a
2. b
3. c
4. c
5. a

TRANSKRIPZIOA

Gurean ezin dira saldu, baina bai Europako hainbat herrialdetan. Onartzen azkena Portugal izan da. Elikagaien Mundu Erakundeak dio intsektuen haragia, intsektuek haragiak edota arrainak baino bi aldiz bitamina gehiago dutela. Gustua eta jakinmina izanez gero, Aloña Berazak ditu jakin beharrekoak.

Aloña Beraza kazetaria. Ekialdeko herrialdeetan ohikoa da aspaldidanik eta gero eta gehiago dira intsektuak egunerokotasuneko elikagai gisara hartzen dituzten herrialdeak, biztanleriaren hazkundera eta baliabide naturalen urritasuna hizpide hartuta. Elikagaien Mundu Erakundeak azaldu du intsektuen bitaminak onuragarriak direla gizakiarentzat proteinak eta aminoazidoak dituztelako. Bittor Rodriguez dietista, nutrizionista eta EHUKo irakaslea da eta iritzi du interesgarria dela intsektuak elikagai osagarritzat hartzea.

Bittor Rodriguez dietista. Elikadura edo mantenuaren ikuspuntutik interesgarriak dirudite produktu osagarri bezala. Nik oso argi daukat. Norberaren aukera da norberaren elikadura. Hau da, badaukagu beste... Intsektuek eman ditzaketen bitamina eta mineral eta proteina-iturri batzuk, lekaleak, esaterako. Baina ez nuke esango derrigorrez sartu beharko liratekeenik. Interesgarriak dira. Badauzkagu beste alternatiba batzuk.

Aloña Beraza. Gainera, dieta orekatu batean intsektuak txertatzeko adibide batzuk ere eman ditu.

Bittor Rodriguez. Gosarian hartu liteke proteina-iturri bezala. Intsektuak gurinarekin edo. Baina bururatzen zait ere bai, arratsalde erdian bokadillo (otarteko) bat hartzen baldin badugu, gazta batzuetan, txingurriak edo sartuta. Gazta-bokata bat, gazta horretan txingurriak edukita.

Nik neuk probatu ditut xigortuta: txingurriak, kilkerak... Fruitu lehor zaporea zeukaten, karraskariak ziren... Kurioso.

Aloña Beraza. Proposamen horiek berak kalean luzatuta, era guztietako iritziak jaso ditugu.

Elkarrizketatua 1. Ke ba, ke ba! (Ezta...!) Izugarritzko nazka ematen didate.

Elkarrizketatua 2. Gozoa baldin badago dena jaten da.

Elkarrizketatua 3. Segun nola prestatuta dauden, aperitibo bezala edo pipak bezala, igual jango nituzke.

Elkarrizketatua 4. Probatzeagatik bai. Ikusteko aber (ea) onak edo txarrak dauden.

Elkarrizketatua 5. Piparrak (biperrak) jartzen ditugun bezala ba igual bitxoren (agian animalia)ren) bat jarri beharko dugu zartagan.

Elkarrizketatua 6. Batzuk bakarrik. Kakalardo bat ez nuke inoiz jango, baina kilker bat bai egongo nintzateke prest jateko.

Elkarrizketatua 7. Ez. Atzera ematen nau.

Elkarrizketatua 8. Ez nuke jango hola ez?

Elkarrizketatua 9. Probatu nuen behin, eta ja(da) nahikoa. Zen pipa txar bat bezala.

Aloña Beraza. Hala eta guztiz ere, denek uste dute kosta egingo litzatekeela elikagai horiek gurean txertatzea.

Elkarrizketatua 10. Gauza berri batekin hastea beti kostatzen da. Baina nik uste denborarekin integratuko zirela.

Elkarrizketatua 11. Hemengoak nik uste ezetz. Nahiago dugu txuleta eta arraia. Gauza gozoak.

Elkarrizketatua 12. Kontutan hartu behar da kanpoko jendeak igual ikusten gaituela txipiroiak bere tintan jaten, eta hola, beltzak direnak, edo tripakiak jaten, eta esaten "jo, hori nazka!". Baina gero igual, intsektuak gauza iguala izango litzateke. Azkenean da ohitura hartzea.

Elkarrizketatua 13. Ba nola hartuko dugun ez dakit, baina probatu beharko ziren. Ziur nago jaten badugu txakur bat edo katu bat ez genuela gehiegi notatuko (nabarituko) zapore-aldaketa. Gehiago dela barrera (hesi) mental bat.

Aloña Beraza. Badirudi intsektuak elikagai berriak izango direla aurrerantzean. Dena den, ikusi beharko da oraindik etorkizuneko jaki bihurtuko diren ala ez.